Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juantxo Elizegi Zapirain Prailetarra

Oiartzun, Gipuzkoa
(1938-2018)



Aurkibidea

Biografia



Itturralde baserrian jaio zen. Aita Itturraldekoa zuen eta ama, berriz, Aldura baserrikoa. Aitak baserrian egiten zuen lan, eta ama kalera jaisten zen esnea eta fruta saltzera. Joxe Aizateko eskolan ibili zen umetan. Baina oso gaztetatik mendian egin zuen lan bere anaiekin batera. Bi anaiek lanak hartu eta gero lau anaia aritzen ziren zuhaitzak bota, zuhaitz landareak aldatu, mendia garbitu, mendi-bideak egin... eta gisako lanetan. Zegama, Aizkorri edo Arantzazu izaten ziren uda parteko lan-tokiak, eta gero behera jaisten ziren neguan. Askotan aste osoa pasatzen zuten mendian, lana, otorduak, lo... dena bertan egiten zutela. Itturralde urruti xamar gelditzen zela eta, Joxek hogeita sei urte inguru zituenean, Karrikako Gartxienera aldatu ziren ama eta semeak. 35 urte zituenean mendiko lana utzi eta Beta fabrikan hasi zen lanean. Han aritu zen hogei urte inguru. Gero ardiak jartzea erabaki zuen eta Eskontsegi berri baserrian jarri zen bizitzen eta ardiak hazten. Baina handik gutxira artzaintza utzi beharra izan zuen. Geroztik Petra Lekuona Egoitzan bizi izan da.

Zintak

OIA-091

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zabala, Edurne
- **Data**: 2010-06-14
- **Iraupena**: 130 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com